



Txarriboda

HIKA TEATROA

HIKA teatroa. 29 urteko ibilbidea

Antzerki garaikidea, kontzeptuan eta poetikan oinarritua. Agurtzane Intxaurreagak zuzentzen du konpainia. Bere antzezlan eta lan guztietan emakumearen begirada, izaera eta izana oso presente dago. HIKAren hainbat antzerki testu berak idatziak ditu Arantxa Iturbe idazlearekin batera. Bi emakume hauek asmatu dute historia hunkigarriak bezain krudelak eraikitzen. Ikuslea hasiera hasieratik begiz eta belarriz harrapatzen dutenak. Barrenak astinduz ikuslea hausnarketara gonbidatzen dutenak.

HIKA euskal antzerkia da. Bere sormen guztiak euskaraz jaio eta bizi dira. Bakoitzaren bigarren bertsioa, gaztelaniazkoa, alegia, Estatuko merkatuan zabaltzeko asmoz eraikitzen da.

Sariak

2015: LA NOCHE ARABE, Garnacha de Haroko Jaialdian Muntaia Eszeniko Onenari Saria.

2015: PALABRAS, Euskal Ekoizpen Onenaren Ercilla 2014 Saria XXXI. edizioan.

2013: PALABRAS, Torrejon de Ardoz-eko Emakumezkoen Eszena Zuzendarien XVI. Lehiaketan Zuzendari Onenaren Lehen Saria eta Jose Maria Rodero Publikoaren Sari Berezia

2013: PALABRAS, Garnacha de Haroko Jaialdian Itziar Ituñok Aktore Nagusiaren Lehenengo Saria eta Agurtzane Intxaurreagak Errepartoko Aktorearen Lehenengo Saria.

2011: AITAREKIN BIDAIA, Euskarazko Testu Onenaren MAX Saria.

2010: AITAREKIN BIDAIA, Errioxako Garnachako XIII. Antzerki Lehiaketako Ikusleen Saria Ikuskizun Onenari eta Epailen Aipamen Berezia.

2010: AITAREKIN BIDAIA, Donostia Antzerki Saria.

2006: SEDA, Torrejon de Ardoz-eko Emakumezkoen Eszena Zuzendarien IX. Antzerki Lehiaketako Zuzendari Onenaren Lehen Saria.

2005: SEDA, Errioxako Garnachako VIII. Antzerki Lehiaketako Taularatze eta Zuzendari Onenaren Sariak.

2005: GROAU!, Euskarazko Testurik Onenaren MAX Saria.

2004: IXA, Euskarazko Testurik Onenaren MAX Saria.

2003: AI, AMA!, Euskarazko Testurik Onenaren MAX Saria.

2000: AI, AMA!, Euskal Aktoreen Batasuneko Antzerkiko Aktorerik Onenaren nominazioa: Ainhoa Aierbe.

1999: 2050 EUSKAL OFF, Azpeitiko Antzerki Topaketetako Ikusleagoaren Saria.

Gaur egun eszenatokitian



Koadernoia Zuri



Sagartu

*Maitasuna jantzi da zetazko
soineko zuriarekin
ongi etorri: kristal fineko
kopak jaso eta txin-txin!
Ezkontza eguna bildu dute
bere zelofanarekin
baina barruan bakoitza bere
txerriak bizi du berdin.*

*Bizitza zerriari
eusteko baino ez gara jaio
Bizitza zerriari
etekina atera behar zaio.*



Aurrekariak

Izango dira zortzi urte inguru igaro direnak, Bertolt Brecht-en “Burgesezko ezkontza” antzerki testua, SGAEk antolatzen zuen Andrés Limaren kurtso batean landu nuenetik. Kurtsoaren azken egunean neure proposamen artistikoa aurkeztu bezain pronto, orduantxe bertan geratu zen *Txarriboda*-ren lehen hazitxo landuta nire buruan. Eta egun haietako apunte eta zirriborroak kontu hauetarako bereziki erabiltzen dudana “kutxan” sartu nituen.

Bestalde gaur bi urte eskas, “kutxa” ireki egin nuen berriro. Beste noizbatetik gordeta neukan beste ideia bati hautsa kentzeko asmoz. Hauts harrotze hartatik, Borobil Teatroarekin elkarlanean, L’om-impres-eko Santiago Sánchez-ekin inprobisazio kurtso bat antolatu genuen. Aste betez jotake aritu ginen inprobisazioaren mundua probatzen eta aztertzen. Burmuin eta gorputzeko hautsak harrotzeko entrenamendu aparta izan zen kurtsoa. Santiagorekin ikasitakoa da hurrengo esaldia: inprobisazioa ez da zaila, inprobisazioa “apasionantea” da.

Bi gertaera hauen batuketatik sortu eta ondu da *Txarriboda*.

Zergatik ezkontza?

Ezkontza festa da. Parranda. Itxurakeria, sabelkeria. Zelofananezko zorionaren gotorleku da ezkontza. Egun horretan, guztiok gara sasi aberats eta erromantiko itsu. Txerri hipokritak, izugarritzko *Txarriboda* baten protagonista.

Bere antzerkia bizi duen gertaera da ezkontza. Inoiz modaz pasatzen ez den ikuskizun bizi bakarrenetakoa da ezkontza.

Ezkongaiantzat ez ezik, gainontzeko gonbidatu guztientzat ere bihurtzen da ezkontza egun garrantzitsu eta apartekoa.

“Nori inporta zaio gaur, hau guztia ordaintzeko dirutza, nondik atera den? Zuri? Ez esan! Hipokrita halakoak! Gaur festa handira etorri zarete. Beraz, segi txarri askara jatera, ezta diruak konponduko ez duen ezer gertatu-eta. (...) Txarri maiteok, on egin dagizueta!!”

*T*xarriboda eta *B*odorrío

BODORRIO, ezkontza baten ospakizuna bere onetik atera dela adierazteko gaztelaniak daukan hitza da. "Ospakizun desegokia, handikerizkoa, egoeratik ihes egiten duena", halaxe esaten du hiztegiak. Euskarak bere aldetik, badauka ezkontza ospakizunari berein-berein lotutako hitza: TXARRIBODA. Txarri hilketaren inguruan egiten den festa handia, ezkontza bat bailitzan, hilketan laguntzen aritu diren guztiei ematen zaien bazkaria, alegia. Menua: txerrikoa.

"Zenbat txerri klase bildu litezke ezkontza batean? 1, 2, 3, 10... ez ba, oker zabiltzate: gonbidatu bakoitzeko bat. Horrexegatik dira ezkontzak horren erakargarriak, txarri saldo apartekoa biltzeko gaitasuna dutelako, era guztietako txerriekin: apo zahar, bargasta, makera, ordots, txerrikume eta basurde. Txerrikeria barra-barra eta labana zorrotz, odola bero, irrintzia gor."



Nola?

Filtrorik gabe, modu zuzen eta lotsagabe. Itxurakeriak alde batera utzi eta zuzenean arauen apurketara joz. Azalkeriarekin ahaztu eta zuzenean haragira joz. Pertsonaia bakoitzaren mikro mundutik abiatuz, talde osoaren emozioen katarsira iritsi arte.

KABARETA da bidea: katarsi horretatik sortuko da eta kantuak eta musika izango dira bidea sentimenduen biluztasunik gordinenetara iristeko.

NARRAZIO BASATIA da bidea: horixe da kontatzeko aukeratu dugun era. Uneoro orduak jotzear dagoen erloju baten antzera, narrazio ausarta eta zuzena, pertsonaiak eta ikusleak, biak ala biak ipurdi bistan daudela sentiaraziz.

UMOREA da bidea: Dardara eta barre egiteko nahia, biak aldi berean edota bata bestearen atzetik. Plazerrak leher egin arte.

Zuzeneko musika

Euskal Herriko aspaldiko eta oraingo melodiekin osatu dugu KABARETA. Kantu herrikoiak eta gaur egungo melodiak. Onintza Enbeita bertsolaria arduratu da kabaret honi testuetan piperra eta gatza ematen.

Antxon Valverde: "Maitasunez hil" kantuaren melodia. Letra: Onintza Enbeita

Kantu herrikoiak: "Anteron" eta "Jon Zaharra". Letra: Onintza Enbeita

Patxi Gonzalezen melodia. "Txerria izan nahi dut". Letra: Onintza Enbeita

AFU taldearen "Oxígeno" eta "Cumbia" kantuen melodia. Letra: Onintza Enbeita

AFU taldearen "Banoa".

Imanol Larzababalen "Izarapean" kantuaren melodia

Anari-ren "Naufragoak" kantua



Dekoratzeko etxe
Berriko lau ertzak:
bainera batek bete
dizkigu ametsak
Roca-n bi mila euroan
dauzkate eskaintzak
hidromasajeduna
izan bedi behintzat

Nahi duguna ezkur
urdaiazpikoa,
eta koltxoi handi bat
biskolastikoa
edo abentura bat
gure neurrikoa:
izurdeen artean
bainu majikoa...

Hauxe gure kontu korrantearen zenbakia:

ES57 2096 14 5507 1014273257



Menua

Itxurakeria, ezkur-urdaiazpiko
euskaldunez

Xanpain koktela Kabaret eran

Kontu zaharren entsalada olioazpindua

Onddo eta perretxikoen opari sorta
mikatza

Itsas zapoen lehiaketa, gari-zainzuri eta
trapu zaharren krocketekin

Desio zurrupakia ronarekin

Stripteasa patata bero eta piper
berdeekin

Hostopil eztei tarta, lehergailuz apaindua

Kafe beltza eta odolkiak ordainetan

On egin!



Sinopsia

Mireiak eta Imanolek ezkongai bikote perfektua osatzen dute. Zorionaren irudi dira. Ezkondu egin dira gaur eta Patxi Bilbaok, emaztegiaren aitak eta Ipertrolako handi-mandiak, antolatu du ospakizun gala. Festa itzela. –“Gaur txerrien antzera, jan, edan eta dantza egitea nahi dut!” Hitz horiekin egingo die harrera gonbidatuei. Guztiak bertan daudela dirudienean, ordea, Txusa azalduko da aretoan. Gizon gorputzean bizi den emakumea da Txusa eta Imanolen aitaren azken bikotea izan zen hura hil artean. Mireiak gonbidatu du ezkontzara. Emakumea atsegin du eta aukera polita iruditu zaio Imanolek Txusa hobeto ezagutu eta bere aitarena gaindu ahal izateko. Baina ezuste hau beste askoren hasiera besterik ez da izango eta ezkontza behar zuenak, Txarriboda izaten amaituko du.



Imanol Manterola, ordortz gaztea eta senargaia:

“Urtebeteko lana: jatetxea, gonbidapenak, gonbidatuak, menua, argazki eta bideo erreportaia, manikura, ileapaindegia, jantziak, lore sortak, eraztunak, musika, ezkon zerrenda, ezkon despedida, ezkon entseguak, ezkon bidaia... Tira! Agenda honen arabera, orain koktelera pasako gara. Jaun andreok, mesedez... eskerrik asko eta ezkontza on.”

Iñigo Aranbarri
aktorea
Azkoitia, 1983

Enpresaritzan eta Kultur eta gizarte Antropologian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Antzerki ikasketak Donostiako AET-TAEn eta Berlingo LISPA burutu zituen. Harrezkerotik bere ibilbide profesionala zabala, emankorra eta etengabea izango da hiru esparruetan: telebistan (*Goenkale, Pilotari*), antzerkian (*Einstein Ados* teatroarekin, *Je t'attends!*, *Hire Zain* Gar Produzioak, *Gure Bide Galduak* eta *Arrastoak* Dejabu Panpin Laborategiarekin) zenbait bideoklip eta laburmetraietan ere parte hartu duelarik Thee Brandy hips taldearen “cynism”, Jone Albeniz-en *Tartare* edo Netzer Bereziartuak zuzendutako *Kronosen* esaterako.





*M*iria Bilbao, bargasta gaztea eta emaztegia:

“Eskerrik asko! Maite zaituztet. Denok! Zoriontsu naiz. Jantzi hau, lore hauek, zuek... dena akatsik gabea, baita senargia ere: sentibera, detallista, lagun ona, maitale... gizon perfektua!”

Sandra Fdez. Agirre
aktorea
Barakaldo, 1980.

aktorea, titiritera, abeslaria eta biolontxelo jotzailea hainbat proiektu ezberdinetan, Arte Dramatikoan, Interpretazioa, Gorputz Adierazpena eta Ikasketa Musikaletan tituluduna da. “Escenia 2006” festibalean emakumezko interpretazio onenagatik saritua izan da. Ibilbide eszeniko oparoa du: Markeliñe konpainiaren *Crusoe*, *Quijote*, *el vértigo de Sancho*, *Cuentos de arena*, *Andante*, *La isla Desconocida*, *Cigarra y hormiga*, *La vuelta al mundo en 80 cajas*, *Makinista*, *ZooZoom*, *Anomalia Magnética*, *Carbón Club* eta *Terapia* lanengatik ezaguna, edota Iñaki Ziarrustak Atx Teatroarentzat zuzendutako *Fakii* antzezlanagatik (2016). LAENANANARANJA txontxongilo konpainiaren partaide da, eta beste batzuen artean, *Kontukantari* proiektua darama aurrera.


Zinean ere hainbat lan ditu bere ibilbidean, José A. Pérezen *Lain* (2013); Karlos Alastrueyn *Lodo* (2007) edota Xabier Elkorobarrutiaren *Toro* (2005).

Patxi Bilbao, apo zaharra eta emaztegaiaren aita eta aitapontekoa:

“Alaba batek ez al du egundoko ezkontza merezi? Nire eguzki loretxoa. Bihar ez da beste konturik izango Bilbon. Hedabide guztietan albiste nagusi izango gara! Egon ziur! Ze, gaur ondo pasatzea nahi dut. Gaur txerrien antzera jan, edan eta dantzan egin. Bai, jauna! Gaur dena libre!”

Patxi González
aktorea
Amorebieta, 1949

Aktore eta musikari bizkaitarra, EiTBrren hastapenetatik ibilbide oparoa egin duena hainbat saioetan (*Hau da hau, Bi eta bat, Jaun eta Jabe, Martin, Vaya Semanita, Mi querido Klikowsky, Eskamak kentzen*). Antzerkian hainbat konpainiekin egin du lan: Tanttaka konpainiaren *La mano del emigrante* (2002); *El Florido Pensil* (2006); Hika konpainiaren *Zeta* (2005) eta Glu Gluren *Su txikian* (2012). Ikuskizun eta ebentoen (egunkarien aurkezle, auditoreentzat, publizitate kanpainak, omenaldiak, urteurrenak, kontzertuak) aurkezle gisa lan egiten du, bereziki. Aldi berean, Txatanuga Futz big bandaren abeslari izan da urteetan, hainbat diska grabatu dituelarik. Bestalde, haur, gaztetxo eta helduei zuzendutako kontzertu musikal eta didaktikoak eskaintzen ditu. Orain gutxi Bilbainaden Lehiaketan irabazle izan da.





*T*xusa, Imanolen ama orde urdanga:

Zuek ez arduratu nitaz. Ni moldatuko naiz, beti moldatu izan naiz. Nik gaur ondo pasatzeko asmoa daukat, Imanoli gustatu ala ez. Hau Txarriboda galanta!

Kepa Errasti
aktorea
Aretxabaleta, 1981

Kazetaritzan lizentziatua EHUⁿ 2004an. Horretaz gain, antzerkia ikasi zuen Donostiako Arte Eszenikoⁿ Tailerrean 4 urtez, eta egun bertako irakasle da, "euskarazko testuak" irakasgaiarekin.

Hainbat antzerki lan profesionaletan aktore moduan lan egin ondoren, *Amamaren Memoria*, *Terapiak*, *New Orleansko Cyrano*, *Treblinkara Azken Trena*, besteak beste, bere konpainia propioa sortu zuen 2015ean; *Xake Produzioak*. Beren estreineko lana, *Mami Lebrun*, hainbat lekutan eskaini dute eta dagoeneko hasi dira bigarren lana prestatzen, *Lur*. Bi lanetan aktore eta gidoilari moduan aritu da.

Telebistan *Goenkalen* hasi zen aktore moduan eta ondoren gidoilari lanetan ere aritu zen. *Bi eta bat* telesaileko denboraldi berrian ere parte hartu zuen. Beste hainbat telebista saiotan ere aritu da gidoilari moduan.

Gari, basurde bizizalea eta zerbitzaria:

Antzematen duzue? Usaintzen duzue gaurko hau... zer izango den? Jostailu festa itzela eta ni erdi-erdian, panpin guztiekin jolas egiteko prest: aita, emaztegaia, senargaia, pianisti... Norbait falta ote? Antzematen duzue, ezta? Hauxe da: Koktel de Xanpan!

Juanjo Otero
aktorea
Bilbo, 1974.

Bilbon aktore eta arte eszenikoen sortzaile, ahots sakon eta alde komiko handiduna. Arte Dramatikoan lizentziatua, Arriaga Antzokiak zuzendutako hainbat ekoizpen handitan parte hartu du, Gustavo Tambascio, Enrique Viana eta Lluís Pascualen zuzendaritzapean. Antzerkian hainbat konpainientzat aritu da lanean: Euskal Herrian, Hortzmugaren *Nola!* (2016) edo *12K* (2012); Markeliñeren *Carbon Club* (2006), *Punto Rabo* (2004), *La vuelta al mundo en 80 cajas* (2000); kanpoan, Els Comediantsen *La Farandula* (1998) edo Mathilde Rambourgek zuzendutako *Calígula* edota *Cabaret Mundo Fantástico* (2013-2015) bezalako proiektuetan zuzendari artistiko gisa; Bartzelonako MACBA museoarentzat Itziar Barriok zuzendutako performancea; Chusma Teatrotoren *Expansiones* edo *Irakurtzaile Anbulanteak*. Zinean ere aritua, hala nola, Borja Cobeagaren *Democracia* (2013); Jabi Elortegiren *Zorion perfektua* (2009) edota telebistako *Goenkale* saioan (2009).



*K*oldobika Mirena Ajuria, ordotz musikaria eta emaztegaiaren lehengusua:

Hara, errepertorio zabala joko dautsuet. Tema guztiak, Chopen, Bach eta abar. Gaur egungo musikak bere. Zelan ez! Fredi Mercurie? Problemarik gabe. Xabier Saldias? Begiak itxita. Eñaut Elorrieta? Malko eta guzti. Baina Pakito ez! Pakito Ez!

Iñaki Maruri
aktorea eta musika konponketak
Ondarroa, 1983.

Bilbon bizi den aktore, abeslari eta pianista, ARTEBI eta ANIMA eskoletan (Marina Shimanskaya) arte dramatikoa eta Bilboko kontserbatorioan piano ikasketak egina. Maitane Zalduegi dantzari eta koreografoarekin kantu eta dantza-jazzean aritua. Hainbat antzezlanetan partaide izan da, besteak beste: Pablo Viarren *Sueño de una Noche de Verano*; Emilio Sagiren *La Viuda Alegre* edota Arriaga Antzokiak Enrique Vianaren zuzendaritzapean egindako antzeztutako bisitetan. Felipe Lozak zuzendutako *Cabaret Chihuahua* y *Chichinabo Cabaret* kabaretetan parte hartzen du baita, musika zuzendari, aktore eta pianista gisa. 2017ko martxoan Bilboko Rossini Abesbatzarekin *Zarzuela On Air* proiektua zuzentzen du eta momentu honetan Madrilen dihardu *Enseñanza Libre* y *La gatita Blanca* maiatzean estreinatuko diren proiektuetan lanean.



AGURTZANEINTXAURRAGA

zuzendaritza
Orozko, 1966.

Informazio Zientzietan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. 1989an Eusko Jaurlaritzako ANTZERTIren (Arte Dramatiko Zerbitzua) hiru urteak osatu eta gero, HIKA Antzerki Taldearen sortzailetako bat izan zen. Harrezkero buru belarri ibili da interpretazio munduan, bai aktore lanetan eta baita zuzendari eta gidoigile moduan ere. Hikarekin ekoiztutako *Ai, Ama, Aitarekin Bidaian* eta *Hitzak, Itsasoaren Emazteak* dira, besteak beste, idatzi eta zuzendu dituen antzezlanak bidean hainbat sari jasoz. Une hauetan *Malas Compañías* bilbotar Zirko taldearen lan berria zuzentzen ari da: *Letter, gutun baten bidaia*.

Antzerkiaz gain, telebistan hainbat urtez lan egin du gidoilari eta aktore zuzendari modura *Goenkale* teleaioan. Egun, Dibulitooon Studioren *Teresa y Tim* zuzendu ondoren, *Basajaunen* animaziozko filmean ari da lanean. Bestalde, hainbat entitate eta eragileentzat neurrirra egindako ikuskizunak egiten dihardu.



Bitartekaritza eta sormen prozesua

Gure lanak nola plazaratu, nola eman ezagutzera, nola erakarri publikoa eta berarekin nola gozatu, egunero egiten ditugun galderak dira. Nola?

Prozesua konpartitzea da bideetako bat. Mediazio lana: sormen prozesua herri bateko komunitate batekin partekatu eta etengabeko feed- back-a sortu estreinatuta bitartean.

“Koadernoia Zuri” izan zen guretzat horren adierazgarri. Ikuskizuna Hernaniko herrian sortu eta hasi zen. Bertako komunitate txiki batekin partekatu genuen bidea eta eurekin batera ibilitako bidea zalantzarik gabe erosoagoa, aberasgarriagoa eta, batez ere, antzerkiarentzat askoz ere emankorragoa izan zen. Pausoz pauso, Koadernoia guztion artean osatu genuen eta emaitzak oihartzuna izan zuen herrian eta baita kanpoan ere.

Egonaldiak

Oraingo honetan aldiz, ez dugu herri bakar batean mediazioa egin nahi. Gehiago nahi dugu. Hernanin ikasitakoak eta partekatutakoak beste herri batzuetara zabaldu nahi izan ditugu. TXARRIBODA ikuskizunaren sormen prozesua bost egonalditan burutu da. Egonaldi hauetan, bertako teknikari edota programadorearekin batera adostu dugunetan sentibilizazio eta mediazio lana egin dugu.

Hernani
Azpeitia
Durango
Erresteria
Donostia

Herritarren parte hartzea emanaldietan



Egonaldien partekatze hauetaz gain, emanaldi bakoitzean, tokian tokiko antzerkizale, dantza talde, bertsolari, edota dagokion inprobisatzaile edo artista gonbidatu nahi dugu ezkontzaren parte izan daitezen. Adibidez: herriko dantza taldeko bikote bat, ezkonberriei ohorezko aurrekoa dantzatzeko; herrian dagoen musika talde gaztea, ezkonberriak iritsi bitartean giroa alaitzeko; bertsolariak, bazkal osteko giroa alaitzeko eta ezkonberrientzat bertso pareak kantatzeko. Adibide hauek adierazgarri dira antzerki emanaldia nola herritarartu, nola bihurtu ikuskizun berezi. Ziur gaude guzti honekin eragin handiagoa lortuko dugula bertako eta inguruko hedabideetan. Ikuskizunaz zenbat eta gehiago entzun, orduan eta jende gehiago erakarriko dugu antzokira eta gauza izango gara guztiak jendez betetzeko.



Fitxa artistikoa

Egilea: aktoreen inprobisazioetatik abiatuta Agurtzane Intxaurragak idatzitako testua.

Kolaborazioa: Kepa Errasti

Kantuen letrak: Onintza Enbeita

Kantuak: Antxon Valverderen “Maitasunaz hil” kantuen melodia; Anariren “Naufragoak”; Afu taldearen “Oxígeno” eta “Cumbia” kantuen melodia; Afu taldearen “Banoa”; Imanolen “Izarapean” kantuen melodia. “Anteron” eta “Jon Zaharra” kantu herrikoen melodia.

Antzezle taldea:

Sandra Fdez. Agirre: Mirari emaztegaia eta Mertxera.

Patxi González: Patxi aita eta aitabitxia, Paco eta Tía Brijida.

Iñigo Aranbarri: Imanol senargaia eta Iña.

Kepa Errasti: Txusa ama-ordea eta Mila.

Juanjo Otero: Gari zerbitzaria, Manizaleseko lehengusuak eta Flores sargentua.

Iñaki Maruri: Koldobika pianisti, Mati Plast, Tia Gallega, Tio Sebastian eta langilea.

Zuzendaria: Agurtzane Intxaurraga

Zuzendari laguntzailea: Miren Gojenola

Argiak: Xabier Lozano

Jantziak: Oihana Legorburu

Eszenografia: Xabier Mujika.

Musika arregloak: Iñaki Maruri

Musika baseak: Iñaki Dieguez

“Cumbia” koreografia: Jenni Perlaza

Diseinu grafikoa: Santos Bregaña (Atelier Laia)

Kartelaren argazkiak: López de Zubiria

Promozio argazkiak: Egoitz Bengoetxea "Otxabi"

Promozio bideoak: Acrónica producciones

Eszenografia errealizazioa: Eskenitek

Talde teknikoa: Eraginstac

ekoizpen exekutiboa: Xabier Mujika, Hika.

Administrazioa: Asun Etxeberria

Banaketa eta komunikazioa: Hika Teatroa (Amaia Kerexeta)



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskeria Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



berria



KULTURA
kreatiboa

Errenterriako Udala



HIKA Antzerki Taldea, S.L.

Aldapa kalea 14. Donostia. Gipuzkoa

T 633 252 200 - 656 792 501

hika@hikateatroa.eus

www.hikateatroa.eus